



Ajangizko Udala

---

## TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUPETZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA

---

### I.- XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua.

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga eskatzen du honako ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

#### 2. artikulua.

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

### II. ZERGA EGITATEA

#### 3. artikulua.

Hauexek dira Zergaren zerga-egitateak:

1. Bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna, direnak direla ibilgailuen mota eta kategoria.

2. Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat joko da erregistro publiko egokietan matrikulatu dena, baja ematen ez zaion bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo-matrikula dutenak ere zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira.

3. Jarraikoak ez daude Zergaren kargapean:

a) Antzinatasuna dela-eta erregistroan baja emanda egonik, aparteko kasuetan erakustaldietan, lehiaketetan eta lasterketetan ibiltzeko baimena jaso lezaketena, horretara mugaturik daudela.

b) Trakzio mekanikodun atoiak eta erdiatoiak, zama erabilgarria 750 kg baino gutxiagokoa dutenak.

### III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

#### 4. artikulua.

1. Zergatik salbuetsita egongo dira:

a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta toki-erakundeetako herritarren defentsarako edo segurtasunerako ibilgailu ofizialak.

b) Atzerriko herrialdeetako ordezkari diplomatikoen, kontsul-bulegoetako kideen, eta kreditatuta dauden agente diplomatikoen eta kontsul-funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.



### Ajangizko Udala

Halaber, Espainiar estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten haien funtzionarioak edo kideenak.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak; eta minusbaliodunen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespena inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, urrituek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei dagokienez.

Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako, minusbalioduntzat hartuko dira legez %33ko elbarritasuna edo elbarritasun handiagoa duten pertsonak.

Idatz-zati honetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Hemen ezarrita dauden salbuespenak arautuak dira, eta erreguzko izaera dute. Salbuespenok eskumena duen udal-organoak emandako administrazio-egintza adieraziaren bidez emango zaizkie eskatutako betekizunak betetzen dituzten subjektu pasiboari, haiek eskabidea egin ondoren. Eskabide horretan, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia jaso beharko dituzte, eta, horrekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Zirkulazioko baimenaren fotokopia.

- Elbarritasuna egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiak edo beste organo eskudunak emandakoa; ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen tekniko-fakultatiboa aurkeztea.

- Zinpeko aitopena, ibilgailua minusbaliodunak ez beste inork erabiliko duela adieraztekoa.

Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

7/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauko 2.1d) artikularen testu zaharrean ezarritakoa aplikatuz zerga hori ordaindu beharretik salbuetsita egon diren ibilgailuetatik foru-arau honek artikulatu horri emandako testu berrian ezarritako betekizunak betetzen ez dituztenek testu zaharreko salbuespena aplikatzeko eskubidea izango dute, ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.

Oro har, salbuespena emanez gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian sortzen ditu ondorioak; ez du atzeraeraginik. Hala ere, likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen bada, ezinbestekoa da zerga-zorra sortu den egunean aplikatzeko betekizunak betetzea.

f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia azaldu behar dituzte.



## Ajangizko Udala

Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

3. Ehuneko ehunera (%100) arteko hobaria egongo da ibilgailu historikoentzat, edo gutxienez hogeita bost urte dituzten ibilgailuentzat, fabrikazio-egunetik zenbatuta, Fabrikazio-eguna jakiterik ez badago, lehenengo matrikulazioaren eguna hartuko da fabrikazio-eguntzat, edo, horren ezean, dena delako ibilgailu-mota edo -aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

## IV. SUBJEKTU PASIBOAK

### 5. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazioko baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.

## V. KUOTA

### 6. artikulua.

Zerga tarifa taula honen arabera eskatuko da:

| Ibilgailuaren potentzia eta mota             | Gutxieneko kuota | Koefizientea | GUZTIRA  |
|--|------------------|--------------|----------|
| <b>Euroak</b>                                |                  |              |          |
| <b>A) TURISMOAK</b>                          |                  |              |          |
| 8 zerga-zaldi baino gutxiago                 | 12,62 €          | 1,45         | 18,29 €  |
| 8 - 11,99 zerga-zaldi                        | 34,08 €          | 1,45         | 49,41 €  |
| 12 - 13,99 zerga-zaldi                       | 60,10 €          | 1,72         | 103,37 € |
| 14 - 15,99 zerga-zaldi                       | 84,14 €          | 1,24         | 104,33 € |
| 16 - 19,99 zerga-zaldi                       | 108,18 €         | 1,20         | 129,81 € |
| 20 zerga-zaldi baino gehiago                 | 132,22 €         | 1,11         | 146,76 € |
| <b>B) AUTOBUSAK</b>                          |                  |              |          |
| 21 plaza baino gutxiago                      | 83,30 €          | 1,42         | 120,78 € |
| 21 - 50 plaza                                | 118,64 €         | 1,42         | 172,02 € |
| 50 plaza baino gehiago                       | 148,30 €         | 1,42         | 215,03 € |
| <b>C) KAMIOIAK</b>                           |                  |              |          |
| 1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria      | 42,28 €          | 1,09         | 46,93 €  |
| 1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria | 83,30 €          | 1,09         | 92,46 €  |
| 2.999 - 9.999 kg bitarteko zama erabilgarria | 118,64 €         | 1,09         | 131,69 € |
| 9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria        | 148,30 €         | 1,43         | 215,03 € |
| <b>D) TRAKTOREAK</b>                         |                  |              |          |
| 16 zerga-zaldi baino gutxiago                | 17,67 €          | 1,43         | 26,62 €  |
| 16 - 24,99 bitarteko zerga-zaldi             | 27,77 €          | 1,42         | 40,26 €  |



Ajangizko Udala

|  |         |      |          |
|--|---------|------|----------|
| 25 zerga-zaldi baino gehiago                         | 83,30 € | 1,42 | 120,78 € |
| E) TRAKZIO MEKANIKODUN ATOIAK ETA ERDIATOIAK         |         |      |          |
| 1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria              | 17,67 € | 1,09 | 19,61 €  |
| 1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria         | 27,77 € | 1,42 | 40,26 €  |
| 2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria                | 83,30 € | 1,42 | 120,78 € |
| F) BESTE IBILGAILU BATZUK                            |         |      |          |
| Ziklomotorrak  | 4,42 €  | 1,39 | 6,36 €   |
| 125 cc arteko motozikletak                           | 4,42 €  | 1,39 | 6,36 €   |
| 125 cc baino gehiagotik 250 cc arteko motozikletak   | 7,57 €  | 1,40 | 10,97 €  |
| 250 cc baino gehiagotik 500 cc arteko motozikletak   | 15,15 € | 1,40 | 21,97 €  |
| 500 cc baino gehiagotik 1.000 cc arteko motozikletak | 30,29 € | 1,40 | 43,92 €  |
| 1.000 cc-tik gorako motozikletak                     | 60,58 € | 1,40 | 87,84 €  |

2. Ibilgailu-mota zehazteko, arau bidez ezartzen denari jaramon egingo zaio, eta gainera kontuan hartuko dira ondoko arauak ere:

a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, zenbait eserleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokaera aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe. Furgonetengatik, turismoak balira bezala ordainduko da Zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, Zergak autobusa balitz bezala kargatuko du.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badu, Zergak kamioia balitz bezala kargatuko du.

b) Zerga honen ondoreetarako, motogurdiak motozikletatzat joko dira eta, beraz, euren zilindradaren edukieraren arabera ordainduko da Zerga.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, Zergak aldi berean eta bereiz kargatuko ditu arraste-indarra duen ibilgailua eta hark herrestan daramatzan atoiak eta erdiatoiak.

d) Edukiera dela-eta matrikulatu beharrik ez duten ziklomotorrak, atoiak eta erdiatoiak zirkulatzeke gai diren ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzak horren ziurtagiria ematen duenetik, edo ibilgailua zirkulatzen hasten denetik, kasuan kasukoa.

e) Makina autopropulstsatuengatik, alegia, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batek gainean edo herrestan eraman gabe herri-bidetik berez ibil daitezkeen makinengatik, traktoreei dagozkien tarifak kobratuko dira.

f) Nolanahi ere, tarifetako D) letran agertzen den “traktore” izen orokorrak barne hartzen ditu hala kamioi traktoreak nola “obra eta zerbitzuetako traktoreak”.



## Ajangizko Udala

g) Zaldipotentzia fiskala zaldi fiskaletan adierazten da, eta Ibilgailu Araudi Orokorrean, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikulua segituz, V. eraskinean agindutakoa kontutan hartuta.

## VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

### 7. artikulua.

1. Zergaldia egutegiko urtea izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Izan ere, horrelakoetan, zergaldia eskuraketaren egunean hasiko da, edo ibilgailuari Trafiko Burutzan baja ematen zaion egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.

3. Ibilgailuen lehen eskuraketa denean, edo haien bajaren kasuan ere, kuotaren zenbatekoa egutegiko hiruhilekoen arabera hainbanatuko da, alta edo baja gertatzen den datari dagokiona barne.

Halaber, kuota hainbanatuko da ibilgailua aldi baterako baja emanda badago, lapurtu edo ebatsi dutelako; hori guztia aldi baterako baja dagokion erregistroan jasotzen den unetik hasita.

## VII. KUDEAKETA

### 8. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den egoitza zein udalerritan dagoen, hango udalaren eginkizunak izango dira ibilgailu horren zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta bai zerga-kudeaketan agindutako egintzak berrikustea ere.

### 9. artikulua.

Udalak autolikidazio-araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.

### 10. artikulua.

Zerga ordaindu delako frogagiria Udal Administrazioak emandako ordainagiria izango da.

### 11. artikulua.

1. Trafiko Burutzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenenek, aldezturik Zerga ordainduta dutela frogatu behar dute. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

2. Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek Trafiko Burutzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketak zerga honen ondoreetarako ibilgailuak duen kalifikazioa aldatu badu, bai eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena eskualdatzen bada edo bertan ageri den egoitza aldatzen bada ere.

3. Trafiko-burutzek ez dute ibilgailuen bajei edo eskualdaketei buruzko espedienterik tramitatuko aldezturik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie.

Matrikulazio berrietan, edo ibilgailuari egindako aldaketek zerga-ondoreetarako kalifikazioa aldatzen dutenean, interesatuek jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkiote Udal Administrazioari, Zergaren matrikulari eransteko, 30 eguneko epean, matrikulazioa edo aldaketa egiten den egunetik hasita:

a) Zirkulazioko baimena.



*Ajangizko Udala*

- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NAN edo IFK

### **VIII. XEDAPEN IRAGANKORRA**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga indarrean jartzen den egunean Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergan mota bateko nahiz besteko zerga-hobariren bat dutenek hobariaz onuratzeko segituko dute aipatutako zerga horri dagokionean, hobaria iraungitzen den egunera arte, edo, hobariaren onurak mugaegunik ez badu, 1992ko abenduaren 31ra arte, azken egun hori barne dela.

### **IX. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau 2004ko azaroaren 19an onetsi da behin betiko, 2005eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

\*\*\*\*\*